
Baserri

Informatizatua

Nekazaritza-sailaren ekintzen barnean, Luis Mari Etxeberria nekazal injinerua baserriarren gestio-lanetan ordenadoreak izan dezakeen garrantziaz aritzen.

Jendearen ohizko pentsakerak, baserriarra abeltzantzan eta belarra ebakitzen aritua den norbait bezala ikusten du, baina denbora aurrera joan ahala ohizko ekintzak zerbitzu berriak sortu ditu (hots, BEZ) eta baserriarren bizitzan sartzeak gestioa derrigorrezko bihurtu du.

Halaber, nekazaritzan indarrean dau-

den egoera berriek gero eta ahalegin handiagoa eskatzen dute. Adibidez, azien-daren hobekuntza genetikoak inbertsio ikaragarriak eskatzen ditu, eta era berean elikadura eta gobernaketak baserriaren aurrekontuaren zati handia hartzen dute, eta guzti hori ordenadorez kontrola daiteke.

Ordenadoreen laguntza ezinbestekoa gerta daiteke produkzioan. Esate baterako, gaur litro bat esne ateratzeko baserri-tarrek 450 gramo kontzentratu erabiltzen dute, %50 kanpotik ekarriz. Kanpotik ekartze horrek erosketa egiteko merkatu librean sartzea dakar eta komenigarria

izaten da soiak Chicagon zein prezio duen jakitea, honek baserriko elikadurarekin eta gobernatzearekin duen loturagatik.

Informazio guzti hau kontutan hartzea ezinbestekoa zaie etorkizuna duten baserriari. Informatikak posible egiten du, adibidez, merkatu internazionalen pentsua egiteko beharrezkoak diren lehen-gaien prezioa jakitea. Horiekin sortu nahi den konposizioa eta azken prezioa erabakitzea errazten die.

Gaur egun gestioari dagozkion egin-behar hauek, Gasteizeko Gobernuak lagunduriko hainbat zerbitzuek bideratzen dituzte. Gestio-gune hauek baserri-tarrek bidalitako hainbat datu (pentsutan gastaturikoa, ateratako esne-kopurua, salmenta-prezioa eta abar) bilduz, baserriaren errentagarritasuna zehazten dute.

Hitzaldian trataturiko gaiak, gestioan zentratutako hasitapenak bakarrik azaldu zituen. Bien aurrean dagoen eremua zabala eta oztopoz beterikoa da.

Alde batetik, baserriarren artean ez dago ordenadoreerikiko sentsibilitaterik. Hau zuzentzeko, lehen urrats gisa mikroordenadoreak jostailu bezala sartzen ari dira (xakea, martzianoak eta abar) jendea ohitu erazteko. Bigarren urratsean ohituriko jendeari ordenadorearen posibilitateak (bere bizi-moduari aplikatua) erakutsiko litzaizkioke. 

Ordenadorea izango da etorkizuneko cowboyaren pistola

